

00-SARRERA

Bada aho-literaturan genero edo sail berezi bat, aho-literatura bera bezain zahar dena. Grekoek aenigma izena ematen zioten. Edipo bera ere Orakuloak emandako aenigma baten esangura asmatzera behartua egon zen. Gaztelaniaz *acertijo* edo *adivinanza* hitzen bidez pieza txiki bezain trinkoak izendatzen dira. Badira gaztelaniaz sail bereko piezak izendatzeko izen gehiago ere. *Acertijo* eta *adivinanza*, gainera, ez dira gauza bera. *Acertijo* lehenagoko garai batekoa omen da, hitz lauzkoa, eta *adivinanza* hitz-neurtuzkoa¹. Euskaraz ere hainbat modutara adierazten dira, batetik, *asmakizunak* edo *igerkizunak*, eta bestetik, *papaitak* edo *pipitaki-patatakiak*. "Asmatu" aditzaren sustraitik sortzen dira, era berean, *asmaketa*, *asmakari* eta *asmakai* hitzak ere, baina hiru hauek ez dute *asmakizun* hitzaren oihartzunik. Igarri aditzetik ere sortzen dira *igarketa*, *igarkari* eta *igarkat* ere. *Igarketa* eta *igarkari* hitzak, beren erabilera urrian "profecía" esanguran erabili dira. *Igarkai* hitzaren bidez agertzen ziren *Euskalzale* aldizkariko azken orrian igarkizun zenbait.

¹GARFÉR Jose Luis & FERNÁNDEZ, Concha: *Adivinancero popular español* 1990, Fundación banco exterior. 17 or. "Primero fue el acertijo y, cuando éste se arropó con el verso, nació la adivinanza la cual, a su vez, si olvida la musicalidad del verso de nuevo se convierte en acertijo. (...)"

Igarkai delakoa, *asmakai* bezalaxe, eratorbide berrikoa dirudi, itxura guztien arabera. Bestaldeko hitz berri xamarra dirudien *pentsaketa* hitza ere dokumentatzen da artikuluren baitan. *Pataita* hitza ifarraldeko tradiziokoa da, Baxenabarre eta Zuberoakoa. Herri-igarkizunetan agertzen da batez ere. Bibliako pasarteak itzultzeko *asmakari* hitza gehiago agertzen da. Itxura guztien arabera bera da hitzik zaharrena, edo lehenen dokumentatzen dena. Nafarroan antzerako hitz bat esaten zen *pipitaki-papataki*.

"Papaita" hitzaren bidez igarkizunari hasiera ematen zaio Baxenabarre-Zuberoetan. Hona, esaterako, Pierre Duny-Petrek dakarren Donibane-Garaziko formula: *Nik papaita, zuk papaita. Nik badakit gaizatto bat. Zuk bestetto bat?*². Çercandek Zuberoan bildu zuena ere antzekoa da. *Çuc papaita, nic papaita; çuc gaiçoto, nik gaiçoto. Çer da?* Hori esan ondoren igarkizuna bera enuntziatzen zen: *Achurian chouri, bildoxian gorri, ar-dian beltch?*³ Nafarroan *pipitaki-papataki* da eta Damaso Intzak ematen du izen horren arrazoa: "Asmakizuna an pipitaki-papataki deitzen dute, beti itz oiekin asien delako. Hona hemen oietako bi: 2406. Pipitaki papataki, nik badakit gauza bat: aurian (eurian), landan, gazta bat. Zer ote da? Illargia".

Hegoaldean *igarkizunak* eta *ikusi-makusi* direlako jokoek badute elkarren artean antzekotasunik, edo behintzat izan dezakete. Duny-Petrek dakartzan adibideen arabera, badirudi zenbait kasutan oso antzekoa izan daitekeela. Hona garazitarren adibidea *Ikusi-mikusil... Zer ikusi?* Eta ondoren *Ehun zango eta xutik ezin egonez. Zer da?* Asmatu ezin eta zer den jakin nahi duenak *etsi!* edo *uko!* esaten zuen. Adibide honetako *ikusi-mikusia* ez ote da igarkizuna ere bete-betean? Behin honetaraz gero, baieztatu daiteke igarkizuneko objektua jokat-

² DUNYPETRE, Pierre: "Xirula-Mirula" in *Anuario de Eusko Folklore*, 87 or. tomo 35, 1988

³ ÇERCAND, François: "Légendes et récits populaires du pays basque" in *Bulletin de la société des sciences, lettres et arts de Pau* 1875-1876 (IX)238or.

zen ari direnen ikusterrean, edo begien mendean, baldin bada-
go, *ikusi-makusi* bihurtu daitekeela.

01-IGARKIZUNA ANTZINATEAN

Igarkizuna amets egitea bezain zaharra da. Antzinatean uste zen ametsetan jainkoek etorkizunaren berri ematen zutela. Ametsak ziren etorkizunaren giltza. Ametsak ez ziren, ostera, garden eta garbiegiak. Ametsak igarkizunaren gisakoak ziren. Norbaitek amets harrigarri bat eginez gero, zerbaiten gakoa, edo etorkizuneko berri ametsaren barruan gordetzen zelako ustea hedatua zen. Errege batek amets harrigarri bat eginez gero, bere igarleei esan eta ametsaren sekretua zulatzen ahalegintzen ziren. Tankera honetako amets eta ikuspeneren testigantza ugari ditugu antzinatean. Hona hemen bakarrik Ziro erregeari gertatuak.

Zirotik, Persiako erregeak, eszidak hesitu edo inguratu zitue-
nean, hauek geziak bidali zizkioten igel eta arratoi bana zituz-
tela. Zer adierazi nahi zuten geziokin? "Sar zaitetz urpean igel
baten moduan edo sar zaitetz lurpean arratoi baten moduan,
bestela esziten geziek zulatuko zaituzte".

Hona Herodoto lehen historiagilearen beste adibide bi (His-
toriak I):

107 (pasartea) *Eta erresuma Zyaxaresen seme Astyagesek oi-
nordetu zuen. Eta alaba bat izan zuen. Mandane jarri zion
izena. Honek hainbeste pixa egiten zuela iruditu zitzaion Ast-
yagesi ametsetan, non bere hirta bete eta Asia osoa gainezka-
tzen zuen. Eta ametsetako mago amets-interpretarien baitan
jarri zuenean, esanahi bakoitzaz jabeturik, beldurtu egin zen
(...) 108 (pasartea)-*Eta Mandane Kambysekin bizi zela, lebe-
nengo urtean Astyagesek beste ikuspen bat izan zuen: iruditu
zitzaion bere alaba honen lotsaizunetatik mahatsondo bat sor-
tu eta Asia osoaz jabetzen zela. Eta hau ikusi eta amets inter-
pretarien baitan jarri ondoren, Persiatik erditzeaz zegoen bere
alaba ekarrarazi zuen; eta, iritsi orduko, zaindu egin zuen,**

bareganik jaitzen zena hiltzeko asmoz; zeren ikuspenari buruz magoetako amets-interpretariak, bere lekuan alabaren umea izango zela adierazi zioten⁴.

201(pasartea)-*Eta Araxes zeharkatuta gero, gaua gaineratu zenean, masageten lurraldean lo zegoela, honelako ikuspena izan zuen. Zyrori lotan Hystaspesen semerik zabarrena sorbaldean begoak zituela ikusten zuela iruditu zitzaton, eta haue-tako bat az Asiari eta besteaz Europari itzal egiten ziola. Hain zuzen, Hystaspes Arsamesenaz, akhemenida izaki, Dario zuen semeetan zabarrena, orduan gebienez ere bogei urte zituelarik; eta han persiarren artean geratuta zegoen gerrara joateko adinik ez zuelako. Beraz, Zyro tratzarri zenean, bere buruarekin ikuspenaz pentsatzen jarri zen.*

Biblian ere igarkizunen berri ematen duten hainbat pasarte daude, hona hemen zenbait:

Hebreoen artean Joram igarkizun edo enigmez baliatu zen Abimelech erregeaz trufatzeko. Grekoen artean, orakuloetan erabili izan zen eta ia beti bertso exámetroetan idatzia izan zen. Sabako erreginak Salomon erregeari igarkizun harrigarrien korapiloak eskaintzen dizkio honen gazteluan. Sabako erregina Arabiatik etorri zen Salomonen gaztelura. Aspaldi hartan, sortaldeko ohitura zen galdera zail eta ilunen bidez pertsonen argitasuna probatzea. Galdera zail-ilunoi bat-bateko erantzun egoki eta argigarriak emanez gero, asmatzailearen talentua diru edo sari bidez sarizatzen zen. Salomon erregearen ospea herrialde urrunetara hedatu zen. Salomon jakitun bezain aberatsa zen. Lurgain honetako gizonik aberats bezain argienari Sabako erreginak galdera zail, ilun eta bihurriak egin bide zizkion. Sabako erreginaren igarkizun harrigarriek Salomonek bat-batean igarri bide zien. Pasarte hau Biblian bertan agertzen da. Hona Duvoisinen arabera (III Erregeak X kapitulua) :

⁴HERODOTO: *Historiak I eta II* Klasikoak 1991 Guk Iñaki Usabiagaren grekotiko itzulpena erabili dugu

Entzunik Salomonen omena Jaunaren izenean, Sabako erregina ere ethorri zen, asmakaritan haren frogatzera. 2-Eta Jerusalemera sarthurik lagunketa handi batekin, aberastasun askorekin, eta baltsamu, urheketa gaitz bat eta harri baliosak zakharzten kamelu batzuekin, ethorri zen errege Salomonen gana, eta erran zarozkien bere bihotzean zituenak oro. 3-Eta Salomonek argitu zuen aitzinera eman zarozkien solas guzrien gainean, eta hitz bakhar bat etzen izan erregeri gordea gelditu zitakenerik eta zeinari ez baitzuen ibardetsi. 4-Bada, Sabako erreginak ikbustearekin Salomonen zuburtzia guzia eta barek altchatu etchea, 5-Haren mahaineko janhariak, zerbitzarien egonlekuak, bekien araldeak eta soinekoak, eta hango edaraleak, eta Jaunaren etchean eskaintzen zituen holokaustak, etzen gehiago bere baitan. 6-Erregeri erran zaroen: Egia da ene lurrean entzun dudana 7-Zure solasez eta zure zuburtziaz; eta ez nituen sinbesten niri erraileak, neroni ethorri arteo eta ene begiez ikhusti arteo; eta frogatu dut egiaren erdia ere etzarotedala erran. Zure zuburtzia ta zure egintzak nik omenka adituak baino handiagoak dira.

Badira adibide gehiago ere. Sansonek atera zitzaion lehoi ume ikaragarri bat hil zuen behin, eta axuri bat bezala hil zuen bere esku hutsekin. Hil ondoren bertan behera utzi zuen piztia. Handik egun batzuen buruan, lehoiaren ahoan ezti-abaraska bat ikusi zuen. Eztia hartu eta zati bat jan zuen, eta abaraska bereko eztia eskaini zien beste batzuei. Gero honela formulatu zuen igarkizuna (Jujeen liburua XIV kapitulua, Duvoisinien itzulpena):

12-Samsonek erran zioten: Aitzinera emanen darotzuet asmakari bat; eta argitzapena egiten ahal badarotazue estei haukietako-zazpi egunetan, emanen darozkitzuet hogoi eta hamar soin eta bertze haimbertze soimpeko. 13-Bainan ezin argi badezazueke, zuek emanen daroztatzuet niri hogoi eta hamar soinak eta bertze haimbertze soimpeko. Haukiek ibardetsi zioten: Ager zazu zure asmakaria adi dezagun. 14-Jaletik

atheratu da jatekoa eta borthitzetik eztitasuna (Del que come salió comida, del fuerte salió dulzura). *Hirur egunez ezin argitu zuten asmakari bori.*

Nahi hainbat adibide gehiago eman daitezke, baina ez da guri dagokigun kontua hemen zerrendatzea iturri zaharretan agertzen diren testigantza guztiak. Berri gehiago nahi duenak, jo beza José Luis Gárfer eta Concha Fernandez-en igarkizun-liburura⁵ eta Azkuek berak egiten duen "Igarkizunak" lanaren sarrerara..

02-IGARKIZUN-IPUINAK

Gure artean bada igarkizun-ipuin bat baino gehiago. Igarkizun-ipuinen sail batek Salomon erregea du protagonista nagusi. Arrazoia garbia dela uste dugu. Behialako Salomon erregeagana Sabako erregina igarkizun-kontari joan zen bezalaxe, euskal ipuinetan ere erregearen arrebak gurasoen hilberria igarkizun batez eman behar dio. Hona hemen zenbait ale:

(Aita Donostiaren eredu) *Salomonek ba omen zuen arreba bat bera bezain zubur eta askojakina. Salomonek gurasoak gaisorik zituen eta, bietarik baten bat hiltzen bazen, arreba izan behar zen mezularia. Salomonen arrebak "bil" hitza aipatzen bazuen Salomonek berak hitz bori esateagatik hilgo zuen arreba. Arrebak orduan honela dio Bazkoz hil zahar; iñaute hil berri; hire ta nere aita ez tuk ez gose, ez egarri. Ordan Salomonek berak dio "Beraz hil ditun?" Eta arrebak erantzun "Nik ez zioat, bik diok.*

⁵ GÁRFER, José Luis & FERNÁNDEZ, Concha: *Acertijero popular español* Fundación Banco Exterior 1989 Liburu honek, guztiak bezalaxe, baditu bere alde onak eta txarrak. Datu asko dakartza sarreran. Iturri asko aipatzen ditu. Hori da alde hona. Alde txarra iturrien zehazgabatasuna da. Salomon eta Sabako erreginaren artekoa dioenean, esaterako, ez du esaten Bibliako zein liburutan den. Ziro erregearen berri dakarrenean ere ez dakar iturriaren zehaztasunik eta abar.

Formula bera errepikatzen da guk ditugun esaunda guztietan. Adibidekoa Aita Donostiak⁶ bildua da. Barandiaranen eredu-
duan: *Bazko zabar, Bazko berri ire aita eta ama ez dituk ez gose eta ez egarri.*⁷Juan Manuel Etxebarriak *Marti ilbera, ateste ilbarri, Salomonen ama, es egarri.*⁸

Bada beste igarkizun-ipu-
in sail bat, ipuin miresgarrien alo-
rrekoa. Ipuin sail horretako argudioa hau da hitz bitan: Erre-
ge batek badu alaba argi bezain eder hat. Erregeak dio krida
edo pregoi baten bidez, bere alaba ezkonduko dela igarkizun
ezin argituzko bat formulatzen duenarekin. Gauzak horretara,
mutil bat bere etxetik abiatzen da erregearen gaztelura bidean.
Bidaia horretan egunak ematen ditu eta gauza harrigarri zen-
bait gertatzen zaizkio. Gauza harrigarri-
on kateamendua igarki-
zun baten bidez kontatzen dio erregearen alabari, eta honek
ezin argitu du. Azkenean mutila erregearen alabarekin ezkon-
duko da. Tankera honetako ipuin zenbait bildu zituen Mayi
Ariztiak.

PAPAITAK ETA EGURALDI-ERREFRAUAK

Igarkizun edo papaita askoren irudiak bat datoz errefraue-
kin. Badira gun-
e bera duten igarkizun eta errefrauiak ere. Guk
atal honetan eguraldi-erre-
frauak igarkizunekin izan dezaketen
lotura ikusiko dugu. Atal hau beste erre-
frau-
lan luze batetik
igarkizun-artikulu honetara egokitua da

Atal labur honetan bi ale interesgarri aztertuko ditut. Denok
dakigunez Abendua da ilun-or-
du gehien duen hilabetea. Argi-
ordu gehien duena, oster-
a, san Juan eguna,edo beste zenbai-
tek dioten bezala, san Bernabe. Horrefaxe adierazten da Larra-
betzuan Tiburtzio Izpitzuak batutako erre-
frau batean *Egunik*

⁶ Aita Donostia: "Cuentos populares breves" in *Idazlan osoak I*, 138or.

⁷ BARANDIARAN, Jose Miguel de: "De la población de Zugarramurdi y de sus tradiciones" in Homenaje a Odón de Apraiz 78-79or.1977(?)

⁸ ETXEBARRIA, Juan Manuel: *Gorbeia inguruko Etno-
ipuin eta esaundak* Lar-
raiz-Ahozko bilduma 2, 137or.

luzeena, San Juanena; geurik luzeena, Santa Lusiena. Bada koplak pollit bat ere tankera honetakoa Juan Carlos Guerrak bildua. *Santa Luziatan gaua da luze/San Bernabetan eguna/norbera gustora egon ezkerok/ ez da erruki laguna.* Koplak honetako bi data jakin aipatzen ditu santa Luzia batetik, eta san Bernabe (Ekainaren 11), bestetik.

Errefraurik ezagunenetakoa bat *abenduko eguna argitu orduko iluna.* Abenduko egunen artean santa Luzia eguna da gehien markatzen dena. Hor ditugu Barandiaranek Liginagan bildu zituen *Santa Luzia eguna, argia baita ilbuna* eta *Santa Luzia eguna, argia deneko ilbuna.* Tankera berekoa da *Azaroko eguna, bostak eta illuna.* Juan de Iuretagoyenak Ataunen bildua. Egunaren argi-orduak apurka apurka, egun batetik bestera gehituaz joan ohi dira. Inudi baten bidez eman ohi da gehienetara. Apurka apurka joate hori oilo baten pausuak markatzen du. Adibidez Berziako errefracategian *O empezar o ano xa crecen os dias un zanco de galo.*⁹ Euskarazko aleetan ere oilo edo oilar baten pausuak, edo arrak, edo atzaparrak markatzen du apurka apurkako egunargiaren luzatzea Azk 182-*Santa Luzia egunerako eguna oiloa(re)m atzaparra azitzen* edo Barandiaranek Ezkurran bildu zuen bezala *Santa Luziatako ollon aarra bat eguna luzatzen*¹⁰. Apurka apurka hasten bada ere egunargia luzatzen, behin garai bateraz gero, egun batetik besterako luzapena handia da. Hasieran oilo-pausuka luzatzen bada argia, gerora ahuntzaren edo orkatzaren jauzika egiten da. Hona adibide gisa Barandiarenek bilduak: *Liginagan Urtatsetik Apaizio, olluaren urhatsez: Apaiziotik eta Kandealhua orkatzaren jauziez*, Dohoztin¹¹ *Santa Luzia orduko eguna luzatzen da ahuntzaren jauzia* eta azkenik Heletan¹² *Urtatseko, orkatza-*

⁹ CASTELAO DIÑEIRO, Santiago: *Refranero berciano*, Ediciones Lancia 1991 67or.

¹⁰ BARANDIARAN, Jose Migel: "Contribución al estudio Etnográfico del pueblo de Ezkurra" in *Anuario de Eusko Folklore* nº 35, 1989, 43-64or.

¹¹ BARANDIARAN, Jose Migel: "Rasgos de la vida popular de Dohozti" in *Obras completas IV*

ren jauzia luzatzen da eguna. Guzti honek zer ikuskizun du papaitekin? Ikusten denez errefrau hauetan irudiekin jokutzen denez gero, oilo-urrats/basauntz-jauzi erabat egokia da igerkizunetarako. Damaso Intzak bildu zuen igerkizun polkit batean honela esaten da: *Erregetan ollarraren arra, San Antonetan mandazaien legoa, otsaillaren erdira, loa begira. Zer da? Egunaren luzetasuna...Ta martxoaren erdin, gau ta eguna berdin.* Ikusten denez egun-orduak eta gau-orduak berdintzen dira udaberriko ekinozioan, Martxoaren erdialdera (2i zuzen esateko). Erabat bitxiak dira errefrau hauetan erabiltzen diren animaliak batetik oilo/oilar ditugu, eta bestetik, ahuntza, basauntza, orkatza.

Errefrau ezagunenetako bat Azk 1760-*Maiatzean tipi baniz edo handi baniz, burutu behar niz* edo Intz 42-*Garia: txikia banintzen, aundia banintzen, maiatzian buru nintzen* (Zuazu) edo Satrustegik dakarrenez *Haundia banintzan, txikia banintzan, maiatzian zorruan nintzan*. Errefrau hau Abeletzek papaita moduan dakar *Mayatzean txiki banaz edo andi banaz, burutu biarr naz. Gariyari yagoko esakun au*¹³.

03-EUSKARAZKO IGERKIZUNEN BERRI LABURRA

Euskarazko aho-literatura "aberatsa", "joria" eta ez dakit zenbat hofako adjetiboa entzuten ohituak gauden, baina kontua da sail bateko piezak aurkitu asmo dugunean, uste baino ale gutxiago aurkitu ohi ditugula. Eman dezagun, kasurako, euskal igerkizunen zerrenda bat egin nahi duela norbaitek. Non aurkitu? Nora jo? Galdera hauei erantzuteko asmoz egin dezadan saiakeratxo bat lantxo honetan.

a) Hemeretzigarren mendea:

Errefrau-bilduma zaharrak baditugu, zorionez. Hamaseigarrenen eta hamazazpigarren mendeko bildumak denok ezagu-

¹² BARANDIARAN, Jose Migel: "Notas para un estudio de la vida en Heleta" in *Anuario de Eusko Folklore* nº 34, 1987, 65-77or.

¹³ ABELETXE: "Esakun zarrak" in *Eusko Enda* Mayo 1939 nº 45

tzen ditugu. Igarkizun-bildumatxoak ez dira agertuko hemeretzigarren mende amaiera arte. Badira erretrauen artean igarkizun-errefrauak deitzen direnak. Badira, era berean, zenbait erretrau igarkizunen iruditeriatik hurbil daudenak. Hor dugu, esaterako, Oihenarten paperetan aurkitzen den 263-*Porriac bizarra churi badu/ ere bustana verde du*¹⁴. Ale honek antzekotasun handia du Zuhur-hitz 1840-*Bizarra badu eta ez da gizona, xuria da eta ez da oihala, berdea da eta ez da belarra: tipula* eta antzekoekin.

Euskarazko lehenbiziko testigantza idatzia *Manuscrito de Ochandiano* delakoan aurkitzen dugu. Hona hemen adibidea, dakarren modu-moduan: "*Iru chita ta ama lau* (enigma por la equivocacion de *ama-lau* y suele decirse *iru chita amalau*), *cembat dira*?" Ale bakartxo hau Juan Mateo Zabalak (1777-1840) bildu bide zuen. *Lau* erantzuncz gero, galdetzaileak *amazazpi* dio, eta, jakina, *hamazazpi* erantzuncz gero, galdetzaileak *lau* dio. Zenbaki bakarra emanez gero, beraz, ez dago asmatzerik. Euskaraz hainbat igarkizun korritu arren, ez dago zion jende ikasiak inolako garrantzirik ematen edo, nahiago bada, ez dugu igarkizun-biltzailerik ezagutzen mende akabura arte. Hemeretzigarren mendeko hainbat idazle erretrau maitaleak ditugu. Hor daude Juan Antonio Mogelek bildutakoak, Añibarrok ere inoiz zirtakatzen ditu erretrauak bere lanetan. Uriarteren erretrau-bilduma ere badugu. Pablo Pedro Astarloak ere, gaur egun galdurik badaude ere, erretrau-bildumatxo bat egin zuen. Juan Antonio Mogelek berak ahogorapilo bat txertatzen du Peru Abarca lanean. Igarkizunak, oster, zergatik ez?

Argitaraturik ikusi ditugun lehenengo igarkizunak edo igarkizun-zerrendak François Cercand-en "Legendes et récits populaires du Pays Basque" 1874-1882 urtean, Frantziako *Bulletin de la société des sciences, lettres et arts de Pau* aldizkarikoak di-

¹⁴ MICHELENA, Luis: "De Paremiología Vasca. Oihenart conoció los "Refranes y Sentencias en Vascuence" de 1596" in ASJU, 1967, 25 or.

ra. Hiru zerrenda pollit dira, guztira 54 papaita dituzte. Zuberoako hiru herritako eskolamaisuk bidaliak dira, edo behintzat hiru eskolamaisuk transkribatuak. Lehen hogeita bederatzia Irigoien Altzürüküko errientak, bigarren saileko hamarrak Larrainek Iriart jaunak. Hirugarren saileko hamabostak Altxaiko Bazterretx jaunak.

Antonio Machado eta Manuel Machado erdal poeten aitak, Antonio Machado Alvarez folklozezale ezagunak, erdaraz dagoen igarkizun-liburu handi eta ederrenetako bat argitaratu zuen 1880an: *Colección de enigmas en forma de diccionario*. Liburu mardul honetan Bilbaoko gazte batek bidali zizkion hamahiru euskal igarkizun agertzen dira. Nor ote zen gazte hau? Miguel de Unamuno ote zen?¹⁵ Antonio Machadok¹⁶ zerrenda hau argitaratzeaz gainera, euskal igarkizunak eta Andaluziakoak erkatu zituen¹⁷.

Julien Vinsonek bere *Le folk-lore du Pays Basque* (1883) liburuan, Çercanden eta Antonio Machadoren igarkizun-zerrendak sartu zituen. Vinsonek eskeintzen duen igarkizun-zerrenda 78-koa da, baina aldaerak ez ditu zenbakitzen. Aldaerak zenbakituz gero, laurogeitik gora igarkizun aterako lirateke. Vinsonek da, zalantzarik gabe, igarkizun-biltzaile zehatzena, *notz-nori-non* bilduak diren agertzen baitu. Aita Donostiak

¹⁵ ARTECHE, J.: "Una colección de acertijos vascos", BSVAP, 1950, VI, 366-368 or.

Guk hemen jarri dugun galdera guk baino lehenago egin zuen Artetxek berak. Unamunok hamasei urte baino ez zituen 1880an, gaztetxoegia beharbada igarkizun-bildumatxo egiteko...

¹⁶ Rodríguez Marín ere, badaezpadako erretra-biltzailea izateaz gainera, igarkizun-biltzailea izan zen. Badaezpadako biltzailea esan dugu, erretra-kopuru handiegia bildu baitzuen. Kopurua hain handia izateak asmatu zituelako susmoa sorterazi die ikertzaile bati baino gehiagori. Igarkizun kopurua ere ez da txantzetakoa, gogoratzen zaidanez. Igarkizunak ere asmatu ote zituen?

¹⁷ MACHADO ALVAREZ, Antonio ("Demófilo"): "Las adivinanzas vascongadas y andaluzas. Analogía y semejanza entre algunos enigmas populares vascongados y andaluzes" in *Biblioteca de las tradiciones populares españolas* Tomo V. Sevilla: Guichot, 1884, 261-268 or.

dionez¹⁸. Vinsonek Anton d'Abbadieren paperak erabili zituen erran delako zerranda osatzeko. Baliteke zerrendako zenbait berak ere bildu izana. Joan den mendean, Anton Abbadiek ere argitaratu bide zituen zenbait igarkizun baina ez dakigu non, joan den mendeko zenbait aldizkaritako artikulua ez baitira erraz eskuratzen. Azkuek dio igarkizunak irakurri zituela Abbadieren lanen batean. Iduri guztien arabera, Anton d'Abbadiek igarkizunak maite zituen, berari biltzaile batek baino gehiagok igarkizun-zerrendak bidali baitzizkioten. Igarkizun-bidaltzaileetarikoa bat Coriart erremusinari mauletarra izan zen. Igarkizun-zerrenda laburtzua da, hamabikoa. Zerrendatxo hau Aita Donostiak argitaratu zuen *Gure Herria* aldizkarian¹⁹. Guk, era berean, beste hamabi igarkizuneko zerrendatxo bat agertuko dugu hemen, Adrien de Souhi-rena.

Hemeretzigarren mendearen amaieran, *Euskalzale* astekariaren azken orrialdean, *igarkaia edo txaradea* deituriko "adivinanza"-k ere agertzen ziren. Zenbaki bakoitzak igarkizun bat edo gehiago agertzeaz gainera, aurreko asteko igarkizunari zego(z)kion "gauza" edo "argitzapenak" agertzen zituen. Aldizkariaren igarkizun-atal hau, gehienetan Azkuek egingo zuen, baina beste hainbat idazlek ere hartuko zuten parte. Ahalegin honetan ibili ziren Uruzuno, Zamarripa, Mokoroa, Epelde S. B. Igarkizunak asmatzen eta itzultzen ibili beharrean herrian bizi zirenak zehatz biltzen ihardun balira, guk uste, lan askoz politagoa aterako zen.

Euskalzale aldizkarian bezalaxe, *Euskal-Erria* aldizkarian, Ramon Artolak, Victorino Iraolak *somaketak* izenez igarkizunak asmatu eta hurrengo zenbakian gorapiloen askabideak

¹⁸ ZULAIKA ARREGI, J. (Aita Donostia): "Papaitak" in *Gure Herria* 1931, 443-445 or. "tout même je veux signaler les travaux de M. Vinson dans son livre *Le Folklore du Pays Basque* (1883), p. 237-261, où l'on trouvera quelques-unes des devinettes tirées des papiers de d'Abbadie.

¹⁹ Gorago aipatu erreferentziaz aparte bere lan osoetan ere agertzen da. *Obras completas del P. Donostia* tomo I 263-267or.

edo *askantzak* ematen zituzten. *Somakelez* gainera jeroglifico, edo berek esaten zuten bezala, *mutadia edo izitza* direlakoak ere agertzen dira. Gaur eguneko begiez ikusita ariketa txepelak iruditzen zaizkigu. Herri-igarkizunetik aldentu eta ariketa literarioak edo bestelakoak egin asmo zituzten.

b) *Hogeigarren mendea:*

Hogeigarren mendeko igarkizun-bildumak ugariagoak dira, zorionez. Ugartasuna ez da nahi genukeen bezain handia, ez baitira aurkitzen bilduma gehiegirik. Igarkizunak, gehienetan, beste lan batzuekin nahaste etorri ohi dira. Igarkizuna berez gauza urria da. Biltzaile batek bost igarkizun baino gehiago bildu baditu, ohiko neurritik atera egiten dela iruditzen zaigu. Guk aurkitu ditugun gehientxoena zerrendatuko ditugu. Has gaitzen Federiko Garraldaren Zaraitzuko igarkizunekin. Zaraitzuko sukaldean emakumeak linoa eta artilea iruten zutelarik haurrei kontatzen zizkieten hogeitabi igarkizuneko bilduma pollita da, zinez²⁰. Mende hasieran Juan Carlos Guerraren *Viejos textos del idioma. Los cantares del euskera* sailean, lau igarkizun baino ez ditugu aurkitu²¹. Eulogio Gorostiaga zeanuritarak bi baino ez zituen argitaratu²².

Azkueren bilduma da, inolako zalantzarik gabe, euskaraz dugun oso eta beteena. *Euskera* aldizkarian, 1926-an, ehun eta laurogeta seiko bilduma ederra eskaini zuen²³. Bilduma hone-

²⁰ GARRALDA, Federiko: "¿Zer da? Zaraitzuko euskarazko pípitakiak" in *Euskal Esnalea*, 1915, V, 92-93 or.

²¹ GUERRA, Juan Carlos: "Viejos textos del idioma. Los cantares del euskera" in *Euskalerriaren Alde* 1923, año XIII, nº 238, 429 or. 1)Punta bat eta punta bi atzean zulo bi: artaziak 2)Dira lau neskatilatxu, beti alkarren atzian, ta ezin alkarri ikutu: Arilkaia. 3) Zer dala eta zer ez dala, ura eraten juaten dana, taturik eran barik etorten dana: arrana. 4)Basuan jayo, basuan azi, errira etorri ta bera nausi: alkatearen makila.

²² GOROSTIAGA, Eulogio: "Un aspecto de la vida popular en el señorío de Vizcaya" in *Euskalerriaren alde* 1927 tomo XIX, 345-346 or.

²³ AZKÚE, R. M.: "Igarkizunak" in *Euskera* 1926, VII, 2garren zenbakia 14-44 or.

tako ale guztiak ez dira berak bilduak, lehenago argitaratutako igarkizun-zerrendez ere baliatu zen. Garralda zaraitzuarraren aleak, esaterako, sartu zituen bere zerrendan. Azkue 1935ean *Euskalerrriaren Yakintza* hasten denean argitatatzen *Euskera* aldizkariako zerrenda handiagotu egin zuen. Azkueren emaitzarik handiena, beraz, *Euskalerrriaren Yakintza III* alean agertuko da. Badira, hala ere, bilduma honetaz hainbat galdera? Azkueren iturriak guztiak ote dira fidagarriak? Berak ahoz bildu zituen ez dugu inolako zalantzarik, baina Elissalde markatzat dituzten igarkizunak ez ote dira itzulpenak? Elissalderen ("Zerbitzari") errefrau-ale asko itzulitakoen sunda duten bezalaxe, igarkizun aleek ere ez ote dute?

Landerretzek ere sartu zituen zenbait igarkizun bere errefrau-zerrendetan²⁴. Damaso Intzak ere errefrauak ezezik, igarkizunak ere bildu zituen²⁵. Badu artikulu bat edo beste errefrauaren gainekoa²⁶, baina gehienak bere errefrau-liburuan agertzen dira. Guk hogeita mahiru behintzat zenbait dizkiogu Polikarpo Iraizozek lagundurik argitara zuen errefrau-liburuan. Kandido Izagirrek egindako *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes* lanean ere badira barreiatuak hiru-lau²⁷. Arras politikak dira Elosgi J. bildutako lau igarkizuntxoak²⁸.

²⁴ LANDERRETXE, Martin: "Erran zuhurrak (Adages et dictons entendues)" in *Euskera* VI urtea, IV zenbakia 1925, 37-59or eta *Euskera* 1926, 60-66or. Hona agertzen dituen bi: 88-Xurizko, belzko, pentsatzeko gaizko zeruratno bailko (L côte) eta Zer da, zer izate[n] da, lehenik lau zangotako, gero bi zangotako, eta azkenean hirur zangotako? Gizona.

²⁵ INTZA, Damaso: *Nafarroa-ko euskal-esaera zarrak* Pamplona 1974. *Euskera* aldizkarian agertu ziren errefrauak osatzen dute batez ere. Guk aurkitu ditugunak hauek dira 185-186 bitartekoa, bat; 552-553 bitartekoak, lau; 1350-1357 bitartekoak, zazpi; 2099-2106 bitartekoak, sei; 2405-2408 bitartekoak, bi; 2486-2490 bitartekoak, hiru; 2486-2495 bitartekoak, zortzi. Guztiak hogeitamairu.

²⁶ INTZA, Damaso: "Asmakizunak" in *Zeruko Argia* 1963, Urtarrila 13, 3or.

²⁷ Kipula hitzean, esaterako: "miña da miña, ezta piparra; gónaak dakó eta ezta andria; bizarrak dakó ta ezta gizona (kipulia)" (Aizkirri) "miña da miña: es da piperra, gonaak dauko: ezta andria, bisarra dauko: ezta (kipulia)" (Graciano)

²⁸ ELOSEGITAR, J.: "Etnogaiak" in *Munibe*. Sociedad de ciencias naturales Aranzadi, año XXIII, nº 4, 1971, 426or.

Badira errefrau-liburuetan, edo errefrau-zerrendetan, errefrauekin nahaste igarkizun-zerrendak, edo igarkizun solteak²⁹. Ifarraldean agertu zuten *Zabar hitz Zubur hitz*³⁰ liburuan hainbat igarkizun agertzen dira, baina, zoritxarrez, Azkueren bildumatik hartu eta beren euskarara moldatuak dirudite. Aingeru Irigaraik ere bildu zuen eskutada bat³¹. Artikulu zein liburuetan, bilketa berriko ale bat edo beste aurkitzen da maiz aski. Satrustegiren artikuluetan, ia guztietan arakatzen ibili ondoren batto baino ez dugu aurkitu³². Era berean, *Anuario de Eusko folklore*-ko artikuluetan bat edo beste zirtakaturik agertzen da inoiz³³.

Oraintsuago, bilduma polit bat osatu du Piarres Duny-Petrek, hamaika aleko zerrendatxoak³⁴. *Juegos Infantiles en Vasconia* liburuan, *Atlas etnografiko*-ko bigarren alean, argitaratu da Azkue eta Çercand-en zerrenden ondoren dagoen baliotsuena. Berrogeita lau gauzari dagozkien hirurogeita hamar igarkizun agertzen dira. Azkueren eta abarren igarkizunak baliatzeaz gain Eusko Folkloreko artxiboko ale argitaragabe batzuk ere ematen dira.

Iparraldeko aldizkarietan, batez ere *Gure herria*-ko "Haurren chokoa", zein *Aintzina*-n³⁵, zein *Gure almanaka*-n³⁶

²⁹ ZIARSOLO, Manuel "Abeletxe": "Esakun zarrak" in *Eusko Enda* Mayo de 1939 nº 5

³⁰ LAKA, J.L., ALKAT L., MIHURA, F. etab.: *Zabar Hitz Zubur hitz* (Bertsularien Lagunak), Bayonne, 1984.

³¹ IRIGARAI, Aingeru "Apat-Etxebarne": *Noticias y viejos textos de la lengua navarrorum* Sociedad guipuzcoana de ediciones y publicaciones 240-242 or.

³² SATRUSTEGI, José María: "Folklore de Valcarlos. Los numerales en el folklore" RSBAP 1966, 36or.

³³ SORONDO, Imanol: "Un viejo mandobide entre cuencas del Urola y el Deba" en *Anuario de Eusko Folklore* tomo 35, 1988, 241or.

³⁴ Gorago aipatu dugun "Xirula-mirula II" *Anuario de Eusko Folklore*-an, hain zuzen. Eskeintzen dituen gehienak ezagunak dira.

³⁵ Hona hemen aurkitu ditudan aleak *Aintzina* 1943-ko Urtanil-otsaila 20or., 1942-ko Urtarila 37or., 1943ko 9or.

³⁶ "Pentsaketa" in *Gure Almanaka*, 1934, 50-51or., 1953, 53-54 or.

agertzen diren igarkizunak frantsesetik egindako itzulpen zuzenak dirudite, zoritxarrez. Azken hamarkada honetan ikusi ditugun lanetan Azkueren bildumako igarkizunak ikusi ditugu. Hor dugu Xabier Etxaniz-en lana eta Ramon Zulaikarena. Azken honen lana, konparantza lan pollit bat da Gaztelerriko, Finlandiako eta euskal igarkizunen artean³⁷. Igarkizun berriak asmatzen ahalegin handia egin du Andu Lertxundi idazleak bere *Haur literaturaz* lanean³⁸. Sabin Barruetabeñak ere lan pollit bat argitaratu du ahokorapilo eta asmakizunen gainean³⁹.

04-ADRIEN DE SOUHIREN IGERKIZUNAK

Adrien de Souhi Mauletarrak hartu-emana izan zuen Anton d'Abbadie-rekin, horren froga dira d'Abbadie-ri bidali zizkion gutunak. Abbadieren paperen artean ere Adrien de Souhi honen tartaro kontaera bat ere argitaratu genuen gure oraintsuko libutu batean⁴⁰.

Ikusi ditugun gutunetan bada igarkizunez betetako bat. Hona hemen erreferentzia *Nouvelles acquisitions* 21748 n^o 368. Guztira hamabi igarkizun bidali zizkion. Hamabi hauek ez ziren berak bildu zituen papaita guztien artean zati tiki bat baino, atsegin bazituen askoz gehiago bidaliko zizkiola agindu baitzion (Si ces papaitak peuvent vous faire plaisir il me sera facile de vous en envoyer un grand nombre). Hona zenbakiturik hamahiru papaitok:

³⁷ ZULAICA, Ramón: "Concierto y espejo de la vida. Exposición comparativa y relaciones entre más de mil adivinanzas finlandesas, vascas y castellanas" in *Cuadernos de sección Hizkuntza eta literatura*. Eusko Ikaskuntza n^o13, año 1995 176-82 or.

³⁸ LERTXUNDI, Anjel: *Haur literaturaz*, Erein, Iturriaga Saila. Donostia, 1982.

³⁹ MARKAIDA, M. Eugenia eta abar: "Ahokorapiloak eta asmakizunak" in *Ahozko literatura: genero txikiak* Labayru ikastegia, 61-79or. Bilbao 1991

⁴⁰ Liburu hau, hemen zilegi badakit esatea *Lamia, sorgin eta tartaroen erre-suma ezkutua* da. Horko Zuberoako tartaroaren aldaerak eta igarkizun hauek badute ortografian berean ere hainbat antzekotasun. *gb-* arraroa agertzen da *ghison* hitzean, esaterako.

1

*Berde beita eta ezpeita chuskerra
luze beita eta espeita zubaiña
bizarra beitu eta espeita ghirzon.
Qu'est-ce? porria (poireau)*

2

*Korpitza beitu eta zankoik es
bezouak beitu, eta eskuik es
lepoua beitu eta buruik es.
Qu'est-ce!? Mantarra.*

3

*Egbitendinak salzeko eghiten
erostendinak es egarten
egartendinak es ikhousten.
Qu'est-ce!? Hultcha (bière)*

4

*Badizu bost begal eta bost esur
eta halere esin begalita.
Qu'est-ce? mispia (nefle)*

5

*Urbatskal kakatsen
Qu'est-ce? Puntia. (point de l'aiguille)*

6

Hilik eta batzaekin.
Le mot de la réponse n'étant pas très joli à écrire, je vous le
laisse à deviner.

7

*Aitañi gouriaen burunganen bilho bat berbera.
Qu'est-ce?. Pertika (aigüe)*

8

*Aitañi gouriaen mantoua betatchu, betatchu
betatchu betheik.
Qu'est-ce? Hegatza (toi)*

berde beira eta espeita ehustera.
luze beira eta espeita zehaira
bizana beira eta espeita ghoriz
Qui est. ce ? porria (poirau)

Korpija beira eta zankoit es.
bezuak beira eta eskuik es.
Lepoua beira eta buruit es.
Qui est. ce ? Martara.

Egkitendinak baljetko egkiten
Erostendinak es egarten.
Egastendinak es ihhasteren.
Qui est. ce ? Hestcha (biere)

Badizu bast hegal eta bast edur.
eta halere esin hegalta.
Qui est. ce ? mishia (neste)

Urkatikal kaktzen.
Qui est. ce ? Puntia. (point de l'aiguille)

Hilik eta hatzaktire.
Le mot de la réponse n'étant pas très joli à écrire, je vous le
laisse à deviner.



Aitani gouriam burunganer belkhat berbera.

Qu'est-ce ? Tektik. (aiguille)

Aitani gouriam mantora betatchu, betatchu
betatchu bethait.

Qu'est-ce ? Hegaba. (toit)

Uthurila jactin eris.

Etcheakour nigares.

Qu'est-ce ? Ferreta.

Aitak mouz ahala.

chemik jaton.

Qu'est-ce ? Golde nabaria. (ca.)

Lau anderi beita fastones algaren ondotik,

eta secula es atsamaiten.

Qu'est-ce ? Kowseria. (deinde)

Lau behari

zabela egari.

Qu'est-ce ? Alka. (maie)

Si ces papavik peuvent vous faire plaisir
il me sera facile de vous en envoyer un grand
nombre.

9

*Ithurila joaitin erris,
etcheakoun nigarres.
Qu'est-ce? Ferreta.*

10

*Aitak moutz abala,
chemik jaten.
Qu'est-ce? Golde-nabarra.*

11

*Lau andere beita lasterres algaren ondotik,
eta secula es atsamaiten.
Qu'est-ce? Korseiria.*

12

*Lau behari
sabela egarri.
Qu'est-ce! Aska (maïe)*

Hemen agertzen diren hamabi igarkizunok badituzte ordainak beste bilduma batzuetan. Hona hemen zenbait.

1-Luzea da eta ez da muskerra, luzea da eta ez da zuhaitza, bizarra du eta ez da gizona? *Porrúa*. Honen tankerakoa da: *Çercand 45-Berde beita, ezpeita suskerra; choui beita, ezpeita elhurra; bizarra beitu, ezpeita guiçona? Phorria*. Vinson 69-*Ferdia badu, ezta muskerra; churia badu, ezta papera; bizarra badu, ezta gizona.-Phorruya*. (Marceline X., Ainhoa, 1880-ko urriaren 16). Zuhur-hitz 1840-*Bizarra badu eta ez da gizona, xuria da eta ez da oihala, berdea da eta ez da belarra: tipula*.

3-Egiten duenak saltzeko egiten, erosten duenak ez du jasaten, jasaten duenak ez du ikusten (Egithendinak saltzeko eghiten, erostendinak es egarten, egartendinak es ikhouston) Zuhur

72

KULTURA

hitz 1866-Eginarazten *duenak ez du beretzat, ez eta egiten duenak ere, eta norentzat baita, barek ez daki beretzat duela bil-kutxa.*

4-Badu bost hegal eta bost bezur eta bala ere ezin hegaz egin (Badizu bost hegal eta bost esur eta halere esin hegalt) Azkue 1-Aguretxo *pospolin, bost bizar ta bost agin* (Ermua, Oñate) Azkue 50-Bost *bizar ta bost ezur ta gainetik soineko gorria* (G. Amara, Oyarzun)

7-Aitona *gurearen buru gainean ile bat bakarrik* (Aitañi gouriaren burunganen bilho bat berbera) Çercand 21-*Guiçon mebe bat biçar bakhoitz batequi? Phertica*. Çercand 51-*Andere bat bilho bakhoitç? Phertica*. Vinson 67-*Gizon bat lerden lerdena, bürü gañian bilho bakhoitç bateki çbü çbüti*.-Phertika. (M. d'Abbadie)⁴¹. Damaso Intzaren 185-*Basoan jαιο ta basoan bizi: errira etorri ta nagusi. Zer da? Pertika edo akuhua*. Azkue 87-*Gizon bat lerden-lerdena bürü gainean bilho bakhoitz bateki xüt-xütik* (Zuberoa).

8-Aitañi *guriaren mantua betatxu, betatxu betatxu beterik* (gaur eguneko grafian). Adabakiz betetako mantua "hegatza" da edo gure euskaran "teilatua". Çercand-ek dakarren arabera 30-*Aita gouriaren capa oro betbatchu? Hegatça*. Zuhur hitz 1859-*Gure aitaren kapa betatxuz beterik: teilatua*.

9-*Iturrira joatean barrez, etxerakoan negarrez* (Ithurila joaitin erris, etchakoun nigarres) aleak ere berdintasuna du beste ho-

⁴¹Igarkizun hau da zabalduenetakoa. Horrexegatik beragatik egiten du Vinsonek argitzapen hau: J'en ai recueilli plusieurs; les différences sont peu importantes. L'une porte *bizar bakhoitz bateki* "avec un seul poil de barbe"; une autre ne contient pas le mot *mebe* "maigre" ou lerden "effilé"; une autre met *andere* "dame" au lieu de *gizon* "homme".

nekin: *Çercand 7-Uthurrialacouan khantatcen eta etcheacouan nigarrez? Ferreta.* Zuhur hitz 1839-Iturriratekoan irriz eta etxeratekoan nigarrez: *pegarra.* Azkue 106-*Kanpora doaitelaik, irriz; itxera datolaik, negarrez* (Ulzama). *Kanpora diela, farraz; etxera datorrela, negarrez* (Larraun)

11-*Lau andere baita lasterrez elkarren ondotik, eta sekula ez atzematen* aleak badu *Çercand-en 34-Laur andere algarren ondouan lasterrez, eta secula ez algar batçamaiten? Crucediac.* Badu era berean antzekotasunik beste honekin: *32-Laur andere bouéita bateian cerraturic? Intçagorraren laur ichierrac.* Vinson 25-*Laur andre, jaun bat erdian, bethi algarren ondotik lasterrez, eta algar behinere ez atzamaiten.*-*Kurkuria* edo *kruzeidiak* edo *astalkeiak.*(M. A. d'Abbadie) Damaso Intzaren biduman ere agertzen da antzerako bat: Intza 2103-*Makilla baten inguruan lau gizon lasterka eta elkar ezin arrapatu. Zer ote da? Arilkaia.* Federiko Garraldaren Zaraitzuko lehen ere berdintsua dugu 1-*Borz aizpa, laisterka bata berzian atzian, eta sekulan ez arrepatzen batak berziari. Zer da? Allikaria.* Zuhur hitz 1850-Hogoi andere beti elgarren ondotik behin ere elgar atxeman gabe: arrea.

12-*Lau belari sabel egarri* aleak erabateko antzekotasuna du *Çercand-en 36-Laur beharri, sabelegarri? Aska* eta *28-Laur beharri, sabelegarri? Asca.* Era berean Vinson 12- *Laur beharri, sabela egarri-Aska.* Azkue 126-*Laur belarri, sabela egarri* (L²)

Ordain gehiago ere eman genitzakeen Azkueren *Euskalerrriaren Yakintza* baliatuz gero eta baita zerrendatu ditugun artikuluen berri emanez gero. Baina gure asmoa besterik izan da. Euskal esparruan ezagun direla frogatu baino ez dugu nahi izan.

05-AZKEN ONDORIO GISA

Azkue handia izan dugu igarkizunen sailean, beste sail askotan bezalaxe, bilketa lanik handiena egin duena. Bilketa-lanean ezezik, teoria mailan ere gure artean lan politena egin duena bera izan da. Geroagoko hainbat lanetan, iturri horretatik edan da sarri askotan, iturriari erreferentziarik egin gabe. Guk lantxo honen bidez ezagutzen ditugun iturri gehienek berri ematen ahalegindu gara, eta bide batez hamabi aleko igarkizun-zerrenda bat eskeini dugu.

Xabier Kaltzakorta